

## **ZEGAMA KO UDALA**

### **2019KO MARTXOAREN 5EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

2.- GALDE ERANTZUNAK.

#### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

##### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

##### **ZINEGOTZIAK**

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Maite Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

#### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

#### **1.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 01/0219 erabakia, otsailaren 12koa, administrari-laguntzaile lanak burutzen dituen langilearen eskaerak onartuz (edoskitze lizentzia bateratu eta opor egunak).
- 02/0219 erabakia, otsailaren 12koa, Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak bideratu duen posta zerbitzua kontratatzeke espedientean atxikituz.




## ZEGAMA KO UDALA

- 03/0219 erabakia, otsailaren 19koa, hutsik dagoen Idazkari-Kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartuz.
- 04/0219 erabakia, otsailaren 19koa, Buztinkale 6 etxean fatxada konpontzeko baimena eman ondoren, ezargarriak diren zerga eta tasen kitapena onartuz.
- 05/0219 erabakia, otsailaren 21ekoa, Iparragirre Eraikuntzak S.L.ri, ur beroaren zirkuitu nagusiaren hornidura sarea galdara gelatik udal eraikinetara eramateko lanen barnean ezarritako fidantza itzuliz.
- 06/0219 erabakia, otsailaren 21ekoa, 1144 fakturen erlazioa onartuz, guztira 42.849,56 eurokoa.
- 07/0219 erabakia, otsailaren 21ekoa, 3 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira 45.614,64 eurokoa.
- 08/0219 erabakia, otsailaren 26koa, San Bartolome jaietako zenbait kitapen onartuz (Orkatz eta txurroen salmenta).
- 09/0219 erabakia, otsailaren 27koa, Udal langileen ordainsariak onartuz.
- 010/0219 erabakia, otsailaren 28koa, 1264 fakturen erlazioa onartuz, guztira 9.043,78 eurokoa.
- 011/0219 erabakia, otsailaren 28koa, 4 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira 8.326,78 eurokoa.
- 012/0219 erabakia, otsailaren 28koa, peoi lanak burutzeko langilearen kontratazioa onartuz.
- 013/0219 erabakia, otsailaren 28koa, lan baimena onartuz (Txarape J).
- 014/0219 erabakia, otsailaren 28koa, lan baimena onartuz (Txarape H)
- 015/0219 erabakia, otsailaren 28koa, lan baimena onartuz (Buztinkale 9).
- 01/0319 erabakia, martxoaren 5ekoa, oroimen historikoa berreskuratzeko laguntza deialdiaren barnean, Foru Aldundiari eskaera egitea onartuz.

## 2.- GALDE ERANTZUNAK.

- Olaia Elorza Iñarra zinegotziak (EH Bildu), Korrikaren inguruan burutko diren zenbait ekintzen azalpena egiten du.
- Maria Pilar Elorza Inchausti zinegotziak (Zegama Lantzen), "Correos" zerbitzuaren arduradun berria izendatzeko prozeduraz galdetzen du. Alkateak, honi buruz dituen azkeneko datuak azaltzen ditu.
- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu) kioskoko plazan kokatzen



## ZEGAMA KO UDALA

den ikurriñari kenduta dagoela ikusirik, honi buruz galdetzen du. Alkateak adierazten du haizearen eraginez erorita zegoela, eta horrenbestez, berri bat jarriko dela.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasorarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

### Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2019ko .....k .....

O.E./ V<sup>o</sup>B<sup>o</sup>  
ALKATEAK/EL ALCALDE

### Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2019.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO